

**2016-17 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa**  
**Programación didáctica anual/de curso 2016-17**

ikastetxea: <i>centro:</i>	URIBEKOSTA BHI	kodea:	015143
etapa: <i>etapa:</i>	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA	zikloa/maila: <i>nivel</i>	2.MAILA
arloa/irakasgaia: <i>área / materia</i>	ASMAKUNTZEN eta MAKINEN TAILERRA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>integradas/ áreas</i>	TEKNOLOGIAK		
diziplina barruko oinarritziko konpetentzia elkartuak <i>as disciplinares asociadas</i>	HKG-HIZKUNTZA ETA KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA AG-ARTE-KULTURARAKO GAITASUNA GHG-GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA TG-ZIENTZIARAKO ETA TEKNOLOGIARAKO GAITASUNA		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	GAIZKA IRIBAR LARREA	ikasturtea:	2016-17

**Zeharkako kompetentziak/versales** :

- PIG- Pentsatzen eta ikasten ikasteko gaitasuna
- HHG- Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna
- EG- Elkarbizitzarako gaitasuna
- NAG- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna
- IIG- Izaten ikasteko gaitasuna

helburuak	ebaluazio-irizpideak <i>evaluación</i>
1. Arazo praktikoak irudimenez ebaztea. <b>(TG, HKG, PIG, NAG, GHG)</b>	1.1. Prozedura tekniko xumeak ezagutzen eta deskribatzen ditu. 1.2. Eskuarki eskura dauden materialak zein tresnak baliatzen ditu. 1.3. Ingurugiroa errespetatzea du. Material birziklatuak erabiltzen ditu ahal duen neurrian. 1.3. Talde-lana arduraz betetzen du. Bere ideiak plazaratzen eta partekatzen ditu taldean, beste taldekideak proposatutako ideiekin konparatzen ditu konponbide egokiak aukeratzeko. 1.4. Autonomia pertsonala eta erabakiak hartzeko konfiantza garatu du.
2. Aurretik zehaztutako funtzionamendu tekniko bati jarraituko dion objektua diseinatzea eta eraikitzea. <b>(TG, PIG, NAG, HHG, IIG)</b>	2.1. Informazioa bilatzen jakitea iturri anitzetan.

<p>3. Makinen eta erreminten atalak identifikatzea, eta haien funtzionamendua ezagutzea. <b>(TG, PIG, NAG)</b></p> <p>4. Tailer gelan erabiliko diren materialak identifikatzea, eta haien propietate orokorrak eta aplikazioak ezagutzea. <b>(TG, ZG)</b></p> <p>5. Klaseko esperientzia edota eraikitako proiekturen bat ikastetxe mailan plazaratzea. Ikastetxeko webgunean jarri edo erakusketa bat antolatu. <b>(TG, HKG, AG, NAG, EG, IIG)</b></p> <p>6. Euskal Herriko lanbide eta ekipamenduak denboran identifikatzea. <b>(TG, HKG, AG, EG, IIG)</b></p>	<p>2.2. Ideiak adierazteko objektuen bozeto eta planoak xumeak marraztea sistema diedrikoan.</p> <p>2.3. ideia ezberdinen arteko aldeak baloratzen jakitea, eta arrazonamendu logikoa erabiliz egokien artean bat aukeratzea justifikatuz.</p> <p>3.1. Tailerreko tresnak eta erremintak erabiltzen ikastea, segurtasun arauak errespetatuz.</p> <p>3.2. Eguneroko bizitzan azaltzen diren konponketa eta mantendu lan sinpleei autonomiaz aurre egiten ikastea.</p> <p>3.3. Makina xumeen piezkatzea, eta pieza horiek identifikatzea eta atzera piezak muntatzea guztia funtzionatzeko.</p> <p>4.1. Materialak identifikatzen ditu, baita non eta zertarako erabil daitezkeen.</p> <p>4.3. Zurekin, metalekin eta plastikoekin lan egiteko teknikak ohikoenak ezagutzen ditu. Proiektuen diseinuan material egokiak aukeratzeko dituen haien propietateen arabera.</p> <p>5.1. Eskola komunitatean parte hartzea; Ikaslea bere burua eskola komunitatearen kide sentiarazten du.</p> <p>6.1. Kultur esanahiak eta ondarearen kontserbazioak duen garrantzia aintzat hartzen du.</p> <p>6.2. Euskal Herriko gizarteak izan duen bilakaera teknologikoaren ikuspegi orokorra ezagutzen du.</p>
---	--

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

*didácticas, proyectos, núcleos de*

**ARAZO-EGOERA:**

**Testuingurua:** Klaseko zenbait bonbila erre egin dira eta berriekin ordezkatzeko dira. Ordezkatzera haien ezaugarri teknikoetan erreparatuko dugu: volta, intentsitatea, potentzia edo kontsumoa, frekuentzia, materialak, eta abar. Bestetik, instalazio elektrikoak dauzkan elementuetan: babesteko magnetotermiko eta fusibleak, kontrolerako etengailuak eta kommutadoreak, eroaleak (kableak) eta konexioak (serie eta paralelo).

**Problema:** Konexioak egiten ikastea.

**Xedea:** Tailer-gelarako instalazio elektriko hobea diseinatzea.

**PROIEKTUAK:**

**1go. ebaluazioa:**

- Materialak bereizteko makina (12 ordu)
- Ordenagailu baten piezakatzea (5 ordu)

**2.ebaluazioa:**

- Kotxe automatikoa (14 ordu)
- Energia lantzen duen makina bat (12 ordu)

**3. ebaluazioa:**

- Baporea (12 ordu)
- Elektrizitatea lantzen duen makina bat (10 ordu)

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

**Oinarriak:** Erabiliko den metodologia printzipio didaktiko hauetan oinarritzen da:

Ikasleen parte hartzea ardatz nagusia izango da; lan pertsonalean oinarrituta irakasleak taldeko lana ere bultzatuko du, norberaren eta besteen ideia eta iritziak entzun eta baloratzeko gaitasunarekin. Aurreko kontzeptuetatik abiatu da ikasle bakoitzak asmakuntzak eraikitzeko. Prozesu horretan ikasleen arteko ikaste prozesua ez da arbuiatu behar.

Informazioa bilatzeko eta asmakuntzen balioetan hezteko IKTak (informazio eta komunikazioaren teknologiak) hartuko dira oinarri gisa. Eskuarki, Informatika gela baliabide didaktiko iturri bezala erabiliko da maiz.

**Denboralizazioa:** Ikasturtea hiru ebaluazioetan banatuko da, hiruretan proiektuen bitartez lan egingo da. Proiektuak bukatzean txosten-teknikoa idatziko da bai eta proiektua klasearen aurrean aurkeztu ere.

**Taldekatzea:** Ikasgai honek taldean lan egitea sustatuko duenez proiektuak talde-lanen bitartez egingo dira. Egingo den lanaren arabera taldean ikasle kopuru ezberdinak egongo dira.

**Espazioaren antolaketa:** Jarduerak Teknologia tailerrean edo informatika gelan egingo dira.

<p><b>EBALUAZIO-TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]</p>	<p><b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p>
<p>Ebaluazio jarraitua da, hortaz ebaluazioa etengabeko prozesu bat da. Ebaluazio -tresnen artean hurrengoak aipagarrienak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eguneroko lana eta jarrera</li> <li>- Taldearen antolamendua eta koordinazioa: ardurak, lana, jarrera, inplikazioa...</li> <li>- Eraikitako Proiektuak</li> <li>- Aurkezpenak eta txosten-teknikoak (azken hauek aurkeztea ezinbestekoa da ikasgaia gainditzeko)</li> <li>- Materiala eta lanak epean aurkeztea</li> </ul>	<p><b>Kontzeptuak eta Prozedurak:</b></p> <p><b>Proiektuak:</b> Egindako proiektuak eta txostenak baloratuko dira.</p> <p>Nota osoaren %60a izango da.</p> <p><b>Jarrerak:</b> Klasean erakutsitako ikasgaiarekiko interesa eta jarrera baloratuko dira.</p> <p>Nota osoaren %40a da.</p> <p>Dena dela, ebaluazio bakoitzean, ehuneko hauek egokitu ahal izango dira emandako edukiei.</p>
<p><b>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK</b> [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuperazio-sistema...].</p>	
<p>Ebaluazio jarraitua izango da eta ebaluazio bat gainditzeko hurrengoa gainditu beharko da. Kurtso bukaeran gainditu gabe dagoena lan berezi bat egokituko zaio ikasgaia gainditu ahal izateko.</p>	

**OHARRAK /**

Ikasle batek gaindituko ez balu, ikasgaia praktikoa den aldetik, hots, klase saioetan egindako proiektu-lana berreskuratzea ez da erreza erremintak eta makinak erabiltzerik ez dagoen aldetik, gaiari lotutako lan osagarriak aurkezteko eskatuko zaio bere orde.